

dek euskaltegia

● / 2017-11-30 osteguna /



“Anna Meadows, hernaniar batekin Australian bizi den Korrikazale eta euskaltzalea”

// IV

ELKARRIZKETA

Zer da korrika zuretzat?

// III



KONTXI BEITIA, KORRIKAK BAINO MAGIA GEHIAGO DUEN ANDERENGA

«Euskararekin malabarismo eta magia asko egin behar izan dugu»

// II

ANEKDOTAK

Ba al zenekien?

// II



■ KONTXI BEITIA, KORRIKAK BAINO MAGIA GEHIAGO DUEN ANDEREÑO

«Euskararekin malabarismo eta magia asko egin behar izan dugu»

Elvira Zipitriarekin ikasi zuen Kontxi Beitiak. Berak dioen bezala andereño bihurtu zen bizitza osorako “Ni andereñoa naiz, gorroto dut andereño ohia esaten dutenean”.

ANDEREÑO bezala hasi zenean euskaldundu zen aitak behartuta. Bere ilusioa Ingalaterrara joatea zen karrera amaitu ondoren baina aitak esan zion lehenengo euskara ikasi behar zuela (galduta zuten). Garai hartako ikastolak eta oraingoak oso desberdinak direla kontatu digu. Adibidez, etxeko gela batean 7 haurrekin egoten zen Kontxi, egunean bi orduz. Oso kurioa iruditu zaigu jakitea Olentzero eskaileretan gora eta behera nola ospatzen zuten, portalean, kalera atera gabe, debekatuta zegoelako.

Oso emakume aurrerakoia iruditu zaigu Kontxi, indar handikoa eta oso ausarta. Begirada indartsua ikusi diogu adibidez Kongresuko abenturak kontatu dituenen: Kontxi eta beste hiru andereño haien jubilazioa defendatzeko borrokan aritu ziren Parlamentuan, Kongresuan, alderdi politiko desberdinekin bileretan... Kontxik 77 urte ditu orain. Oso ondo dago. Euskaltegiko gure bizilaguna da. Balkoian jartzen ditu Korrikako peto guztiak urtero Korrikak irauten duen bitartean.

Lehenengo Korrikan ama

izan berria zen eta ez zuen parte hartu. Baina bigarren Korrikatik aurrera ez du inoiz hutsik egin. Urtero Korrika ikustera joateko familia osoa elkartzen dira. Eta ez bakarrik haien herritik pasatzen denean baizik eta Korrikak hainbeste jende ez duen txokoetara ere joaten dira. Erriberara adibidez. Hara joan omen ziren behin haur guztiak eta txalaparta ere kotxean sartuta. Oriora ere joatea gustatzen zaio. Eta emozio handia sentitzen omen zuen mugan eta baita Donostian Zurriolatik Antiguako zubiraino Korrika pasatzen ikustean ere. Oilo ipurdia jartzen omen zaio.

Duela bi urte bere familiako lau belaunaldi (laurak emakumeak) elkartu ziren Andoainen Korrikan hasieran: bera, alaba, iloba eta birbiloba.

Azken Korrikan istripua ere



Ezkerretik eskuinera: Mamen, Esmé, Sara, Kontxi, Edurne eta Karlos.

izan zuen Kontxik. Ordiziako Gaztetxeko kilometroan sartu ziren kilometro horretan giroa egongo zela pentsatu zutelako eta erori eta Sanferminetan zezenetan bezala sentitu omen zen Korrika osoa gainetik pasa zitzaionean. Inor ez omen zen hura laguntzeko gelditu. Anbulantziak gero etorri omen ziren.

“Duela bi urte Donostian, erabat hunkituta nengoela Korrika Avenidatik pasa zelako, ezagun batek galdetu zidan: ¿Qué vienes de la Korrika Kontxi? Eta

nik “Bai! Bai!!” eta jarraian ea Korrika nork irabazi zuen galdetu omen zion. “Ez dakit zer esan nion, sutan nengoen! Donostian nengoen eta emakume hark ez zekien zer zen Korrika!!”

Aurtengo Korrikan Hernialdeko AEK Kontxi Beitia omentzea erabaki du. Ilusio handiz jaso zuen berria baina ez du uste merezi zuenik eta sorpresa handia hartu omen zuen. Baina argi dugu: merezi-tako omenaldia jasoko du. ||

■ ANEKDOTAK

Ba al zenekien?

• Lehenengo Korrika 1980. urtean Oñatin hasi zen eta elurpean eta euripean aritu ziren.

• Orain arte Korrikak 40.000 km egin ditu, gutxi gorabehera munduaren zirkunferentziari bira emateko adina!

• Korrikaren azpiegitura oso garrantzitsua da. Egutero 16 pertsona aritzen dira lanean bi furgonetatan. Ibilgailuak gasolina hartzeko baino ez dira geratzen.

• Aurreneko edizioetan dortsala janzen zen, ez petoa.

• 1980ko abenduaren 7an 20.000 lagun bildu ziren Bilbon amaiera ekitaldian.

• 11. edizioan (1999) 11 pertsona izan ziren omenduak.

• 12. edizioan (2001), ibilbide arruntaz gain, internet bidez ibilbide birtuala egin ahal izan zen. Lekukoaren orde ziberlekukoa pasatu zen.

• 15. edizioan, 2007an, euskal emakumeak izan ziren omenduak.

• Lekukoak istripu ugari izan ditu. Esaterako, 1. Korrikan mezua ez zen helmugara iritsi, bidean desagertu zen.

• 4. ediziotik aurrera Pasai Donibanetik Pasai San Pedrorra lekuko eramaileak traineru batean gurtzatzen du badia. ||

EDIZIO GUZTIETAKO LOGOAK



Egileak: Goizeko “Gazte gara gazte eta ez gaude konforme”.

■ ELKARRIZKETA

«Zer da Korrika zuretzat?»



Izena: BERNAR

Zer da Korrika zuretzat?

Nire ustez Korrika jaia da. Baina jai aldarrikatzailea. Familia osoek hartzen dute parte, korrika eginez edo bide bazterretik txalotuz. Oso polita da jendea pozik ikustea.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Ni lanean egongo naiz, Tolosa inguruan. Zorte pixka batekin, lan egiten dudana bitartean, Korrikarekin topo egingo dut.



Izena: LAURA

Zer da Korrika zuretzat?

Niretzat Korrika gauza berria da. Ikusia nuen baina ez nekien zer zen, zertarako balio zuen. Iaz euskaltegiari hasi nintzen eta, orduan, ezagutu nuen Korrika. Uste dut aukera ona dela euskara eta Euskal Herria munduan ezagutarazteko.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Gustatuko litzaidake herrian egotea baina, printzipioz, lanean egon beharko dut. Hala ere, saiatuko naiz parte hartzen eta jendea animatzen. Ea lortzen dudana!



Izena: INMA

Zer da Korrika zuretzat?

Euskararen alde, euskara bultzatzeko eta dirua lortzeko bi urtean behin antolatzen da Korrika. Lekukoa pertsonaz pertsona pasatuko da Iruñeara iritsi arte.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Astigarragatik astearte goizean pasako da. Ni lanean egongo naiz eta, horregatik, ezin izango dut parte hartu. Orain dela bi urte bizi izan nuen eta oso ondo pasatu nuen.



Izena: PEPI

Zer da Korrika zuretzat?

Egun handi bat jendearekin ospatzeko eta AEK eta euskaltegiak laguntzeko. Gure familiarantz oso garrantzitsua da Korrika, festa erraldoia.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Goizean euskaltegira joango naiz eta ondoren ikaskideekin batera, denak joango gara. Ehun edo berrehun metro egingo ditut eta jendea animatuko dut.



Izena: JOSEAN

Zer da Korrika zuretzat?

Hizkuntza sustatzeko eta AEK-k autofinantziatzeko sortu duen ekintza zoragarria.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Ez dut korrika egingo baina espaloitik txalotu, animatu eta lagunduko dut.



Izena: ALEX

Zer da Korrika zuretzat?

Korrika euskara sustatzeko erabiltzen den lasterketa handia da. Nire ustez, zehazki, euskara jende askorekin eta ezberdinekin praktikatuta ahal izateko erabiltzen dudana arrazoia da, hau da, nire euskara hobetzeko eta sustatu ahal izateko lasterketa erraldoia da.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Entzun izan dudanez, aurtengo Korrika, Astigarragan zehar igaroko da, hortaz, lanean egongo naiz eta ezin izango dut parte hartu. Hala eta guztiz ere, martxoaren 11n egun osoan mota askotako ekintzak egin zituzten; eskulan tailerra, trikitipoteoa eta bertso-afari galant

bat. Noski, hor izan ginen!

Bukatzeko, larunbatean, kontzertu bat egingo dute non Akerbeltz taldeak parte hartuko duen. A zer nolako Korrika espero dugun Astigarragan urte honetan!



Izena: MARIA LUISA

Zer da Korrika zuretzat?

Euskara sustatzeko egiten den jarduera bat. Jende asko mugitzen duena Euskal Herrian zehar lasterketa honetan.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Herritik pasatzen den orduan ez naiz izango bertan, baino beste nonbait ikusteko ahaleginak egingo ditut.



Izena: SOCO

Zer da Korrika zuretzat?

Korrika modu bat da ospatzeko eta gogoratzeko euskara gure bizitzaren partaidea dela. Zure lagunekin elkartzen zara, zure AEK-ko ikaskideekin, nire kasuan bezala, eta egun oso berezia eta alai pasatzen duzu. Era berean, animatzen gaitu aurrera jarraitzea, gure hizkuntza sakonago ikastera.

Beharbada, horrelakoak sentituko dituzte Korrikan zehar lekukoa eramaten dutenek, poza aurpegian nabaritzen zaielako.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Nire ikaskideekin eta nire AEK-ko irakasleekin ospatzea espero dut. Agian, bazkaria egingo dugu elkarrekin eta, jakina, nire semeekin korrika egingo dut.



Izena: JORGE

Zer da Korrika zuretzat?

Orain dela 37 urte Euskal Herriak eta euskarak jasaten zuten errepresioa kontuan hartuta, halako ekimena antolatzek zein herriak emandako babesak frogatzen dute euskaraz bizitzeko gaitasuna dugula. Izan ere, bai lehengo antolatzailerak baita korrikalariek ere, horrela sentitu eta munduari erakutsi zioten. Gaur egun, Korrika jai handia da, gure hizkuntza eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko festa. Baina, nire ustez, Korrika bere hasieratik aztertu behar da. Beraz, Korrika esfortzua, ahalmena, sinistea, herri honen batuketara, sentipena, baina, batez ere, INDARRA da.

Zer egingo duzu Korrika herritik pasatzen den egunean?

Aldez aurretik erosiriko petoa jarriko dut eta herritik hasita Perurenaraino korrika eta ozen oihuka joango naiz. Bideaz gozatuko dut eta ibilbidean jasotako indarra ondo barnerratuko dut euskaraz bizitzen jarraitzeko. ■

Egileak: Astigarragako hainbat taldetako ordezkariak.

■ ANNA MEADOWS

Anna Meadows, hernaniar batekin Australian bizi den Korrikazale eta euskaltzalea

Hizkuntza zaila da euskara. Nola animatu zara bakarrik ikastera?

Jende askok esaten du euskara zaila dela. Nere ustez, ez da ez zailagoa, ez errazagoa. Adibidez, badakit zentzu batean, euskara ingelesa baina askoz errazagoa dela. Euskara hizkuntza fonetikoa da, horrek gauzak asko errezten ditu irakurri eta idazten ikasteko orduan. Ingelesa berriz kontrarioa da. Ez du ez hanka, ez bururik.

Euskara ikasteko interesa nere senarra ezagutu nuenean piztu zitzaidan, 2000. urtean. Baina ez nintzen ondo ikastera jarri 2006. urtera arte. Melbourne ez dago euskara ikasteko aukerarik baina 2006ean Londonen bizitu ginen hilabete batzuk eta hango Euskal Etxean ematen ziren klaseetara joan nintzen. Gero beste zazpi hilabetez Euskal Herrian bizitzen egon ginen. Hor ikasi nuen gehiena.

Nik banekien, hasieratik, elkartu ginenetik euskara ikasi behar nuela. Nire buruan, nola ez nuen ikasiko bere senitarte eta lagunaren hizkuntza? Nola ezagutuko nituen eta ezagutuko ninduten beraien hizkuntza ezin banuen hitz egin? Ezingo nuen beti izkinean isilik gelditu, irribarrez, ezer ulertu gabe eta ezer esateko ahalmenik gabe.

Jendearekin hitz egitea maite det eta lotsatuta egongo nintzateke. Ezin nuen espero denak nirekin ingelesez hitz egitea. Eta gainera itzulpenak hori dira, hitzak besterik ez. Eta beren esan nahia, itzulpenean, pixka bat galdu egiten da. Pertsona bat, herrialde bat benetan ezagutzeko beren hizkuntza ulertu eta hitz egin behar duzu. Nire senarrak erakutsi zidan Artzen olerki batek ondo esaten duen bezala. Beraz, euskara ikastea behar-beharrezkoa iruditzen zitzaidan nire familia berria ezagutzeko, beraien diren moduan, beraien hizkuntzan.

Bestalde, hizkuntzak beti izan ditut gustuko. Bigarren hezkuntzan alemaniarra ikasi nuen eta hiru hilabetez Municheko eskola baten ikasten egon nintzen. Baina alemaniarra ez bezala, euskara hizkuntza txikia da, ta nik ere euskaldunen parte izan nahi nuen. Hizkuntza hau ez baka-

rrik mantendu, zabaltzen lagundu. Horregatik nahiz eta Melbournen bizi, nire senarra eta ni euskaraz hitz egiten saiatzen gara. Batzutan ingelesez egiten dugu noski, baina gero eta gehiago euskaraz. Bestalde, gure semea jaio zenetik Iurgik beti euskaraz hitz egin dio semeari eta nik ere beti euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Munduaren bestaldean bizi bagara ere, euskara den altxorra zaindu eta gure eguneroko bizitzaren parte egin dugu.

Melbournen erraztasunak daude euskara ikasteko?

Erantzun zuzena ezezkoa da. Beste euskaldunekin hartu emanak izateko lan egin behar duzu. Bestalde, zure kabuz liburuak, internet bidez, EITB nahieran ikusten, filme euskaldunak behin eta berriro ikusten, irratia eta podkastak entzuten ibiltzen naiz. Gero, noski, nere semearekin liburuak irakurri, jolastu eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen fan handiak gara.

Melbournen, momentuz, ez dago euskal etxerik baina beste familia euskaldun batzuk ezagutzen ditugu eta noizean behin elkartzeko gara umeak euskaraz hitz egin eta jolastu dezaten.

Sydneyen errazagoa da. Euskal Etxea ondo finkatuta dago eta nik dakidala euskara ikasteko klaseak ere badituzte. Ze pena mila kilometrotara dagoela!

Noiz hasi zinen ikasten?

Senarrak lagundu zintuen?

Iurgi ezagutu nuenean gauza garrantzitsuenak ikasi nituen bakarrik. "Kaixo, txokolatzeko izozki bat mesedez". Eta "janari goxoa maite dut" adibidez. Gero, euskal musika entzuten hitz pila bat ikasi nituen. Mikel Laboa, Hertzainak, Beti Mugan, Rafa Rueda eta Bide Ertzean irakasle apartak izan ziren.

Gero, lehen esan bezala, gehien ikasi nuena Londoneko Euskal Etxeko euskaltegian eta Euskal Herrian bizitu ginen hilabete horietan izan zen. Hilabete horietan, egunero, jeiki, gosalduta eta 2 edo 3 orduz bakarka liburuekin ikasten aritzen nintzen. Gero erosketak egitera atera eta dendariekin edo edozeinekin hitz egiten



Anna Meadows eta familia, txistorrak egin zituzten egunean.

hasten nintzen. Edozer gauza galdetzen nuen beraien hitz egin eta mintza praktika egiteko.

Lagunekin ere elkartzeko nintzen, eta askotan gure elkarriketarako mugikorrean grabatzen nituen, gero berriro entzuteko, edo notak idazten nituen.

Lagun eta senitarte guztiei niri euskaraz bakarrik hitz egiteko eskatzen nien. Denak elebidunak direnez, askotan gaztelaniara pasatzen ziren. Esaldi baten erdian bapatean gaztelaniara pasa eta bapatean berriro euskarara bueltatzen ziren. Nik dena euskaraz esanarazi egiten nien.

Gaur egun Iurgi bakarrik daukat nire akats guztiak zuzentzeko eta zaila da. Nik ere ezin ditut denak gogoratu! Zorionez, umeen burua esponja bat da eta askotan galdetzen diot gure semeari: "nola esaten da hau euskaraz?", edo "zer esan du aitak hau dala?" Hitz berri bat, behin bakarrik esatearekin nahikoa izaten da berarentzat. Nik ere horrelako burua izan nahi nuke! Umeen garuna, neurona guzti horiek sutan, hitz desberdinak, gramatika eta dena hain azkar garatu eta lotzen!

Lagun euskaldunak daukazue Melbournen?

Batzuk bai. Ez asko. Facebooken bi talde daude. Melbourne Euskaraz, 24 kide dituen. Eta Melbourne Euskaraz Hitz eta Jolas, ume txikiak ditugun bost familia elkartzeko gaituena. Orain dela hilabete gutxi sortu genuen bigarren

talde hau eta helburu nagusia gure umeak elkartu eta beraien artean euskaraz hitz egin eta jolastea da. Azken finean, hemen Melbourne euskaraz hitzegiten duten bakarrak ez direla ikustea. Jolastoki eta parkeetan elkartzeko gara hilabetean behin jateko, jolasteko eta hitz egiteko.

Gehienbat, oso pozik gaude bere urte berdinak dituen mutil bat ezagutu eta lagun duelako talde honen bidez. Eta zorionez gugandik nahiko gertu bizi dira!

Lehen esan bezala talde hau berria da eta ikusiko dugu zer egiten dugun baina ideia batzuk baditugu. Adibidez, liburu pila bat ditugu euskaraz eta Melbourneko euskaldun guztiei eskaintzeko ideia daukagu. Guk geuk antolatutako euskal liburutegi bat egiteko asmoa daukagu.

Zer gustatzen zaizu Euskal Herriatik?

Herrialde zoragarria da! Basoak, mendiak, hondartzak, herri txiki eta zaharrak, historiaz beteak. Eta, noski, Hernanik nire bihotzean leku berezi bat du.

Jatea oso gustuko dudanez, zuen janaria! Pintxoak, jatetxeak, eta sagardotegiak paregabeak dira. Bestalde, Euskal Herriko jaiak maite ditut eta horra joaten naizen bakoitzean Donostiako La Perlara joaten naiz beti. Zoragarria.

Euskal sagardoa ezin dugu lortu Australian eta horren falta sentitzen dugu. Tasmaniako baserriko sagardoak edaten ditugu eta oso onak

dira, baina ez da berdina. Txistorra gabe ere ezin genuen bizi baina, zorionez, hori guk geuk egiten dugu eta jan duten guztiek oso ona egiten dugula esan digute.

Bestalde, herriko bizitza lasaia da ta kaleko bizitza hori asko gustatzen zait. Jendea kalean aurkitzen da, ez hemen bezela. Hemen dena urruti dagoenez lagunekin elkartzeko askoz zailagoa da. Gure lagun hoberenak adibidez, orokorrean, gugandik ordu betera bizi dira. Zorionez, nire gurasoak eta anaiak gugandik gertu bizi dira. Baina kaleko bizitza hori, atera eta kaxkoan lagunekin topatzeko aukera hori oso faltan sentitzen dugu. Hernanin bizitu ginen hilabeteetan hori zen gehien gustatu zitzaidana.

Baina, tira Hernanin edo Melbourne, beti sentitzen dugu besteren falta. Azken finean, bi etxe ditugu eta beti herri minak jota bizi gara.

Datorren Korrikan zer egingo duzue? Nola antolatuko duzue?

Lehen aipatu dudanez Melbourne Euskarazeko taldekide batek Korrikako materialak eskatu eta antolatu ditu. Iritsi dira eta astebukaeran, larunbata 18an, elkartu ginen. Ezinezkoa izan zen denak elkartzeko baina talde polit bat elkartu ginen eta argazki batzuk ateratzen genituen Melbourneko erdigunean! ■

Egileak:
Hernaniko
"Udaberriko loreak"
goizeko taldea.